

Dispertsioaren haurrak

Espetxe politikaren alderik ilunena



Etxerat

Euskal
Preso eta Iheslari
Politikoen
Senide eta Lagunen
Elkartea




Zer interes eduki dezake gobernu batek ehunka haur eta adin txikikoren eskubideak ukatzeko?

Zer interes eduki dezake gobernu batek haurren bizitzak arriskuan jartzeko?

Zer interes eduki dezake gizarte batek eskubide horien ukazioa zuritzeko?

DISPERTSIOAREN HAURRAK





Dispertsio-politika salbuespen-politika bat da eta, hala denez, eskubideak urratzen dituen politika bat da; gordintasun bereziz jasaten du politika hori preso politikoen ingurune afektibo eta familiarak.

Senitartekoak, lagunak eta hurbilekoak eskubide eta babesik gabe daude eta haietaz ez da hitzik egiten; preso politikoei aplikatzen zaien zigorra jasaten dute; izan ere, helburua horixe baita: zigorra jasan dezatela beren lotura afektibo eta familia-bizitzaren eskubideari uko egiten ez dieten guztiek.

Pertsona horietako bakoitza ukitzen du dispertsioak, era batera edo bestera, zirkunstantzien arabera, eta inor ez du uzten kaltetu gabe. Baina, pertsona zaurgarrienak dira zigortuenak eta kaltetuenak.

Dispertsioaren ondorio larrienak ezagutaraztera bideratua dago lan hau, adin txikikoen eskubideak urratzen baititu sakabanatzeak. Dispertsioak haurren eta nerabeen bizitzan duen eragina aztertu nahi du lan honek.

Dispertsio-politikaren mendean dauden hurrek, helduek bezala, beren eskubideak urratzen direla ikusten dute, eskubide horiek babestu behar lituzketen erakunde eta agintariak ezer egiten ez dutelako eta batere esku-hartzen ez dutelako. Haurren kasuan, zalantzarik gabe, larriagoak dira ondorioak. Erakundeen eta agintarien erantzukizuna, berriz, handiagoa da.

Jatorri eta helburu guztiz politikoak dituen espetxe-politikaren baldintza gogorretan haurtzarotik nerabearora eta nerabearotik helduarora pasatzera behartuak izan dira haur horiek.

Direna izaten uzten ez zaien haurtxo, haur eta nerabeak dira; beren eskubideak ukatzen zaizkie eta euskal preso politikoen beste edozein senitartekori ematen zaion tratua, gogortasun berberekoa, ematen zaie.

Estatu espainiarrak eta frantsesak senitartekoen sufrikarioa erabiltzen dute euskal preso politikoei aringarririk gabeko presioa ezartzeko eta erabilera horren alderik ilunenaren berri ematen du haur hauen egoerak.

Gogoeta-ariketa bat eskatzen diegu txosten hau irakurri nahi duten pertsona guztiei: politikako, sindikatueta eta gizarteko eragileei, erakundeei; orokorrean giza eskubideen alorrean eta bereziki, haurren eskubideen arloan esku-duntzak dituzten agintariei. Gogoeta eskatzen diegu, agertuko ditugun egoerek zenbaterainoko ondorioak dituzten ebalua dezaten eta erantzukizun-ariketa bat eskatzen diegu, luza eta errepika ezin daitekeen egoera honi amaiera eman diezaioten.

I. ZATIA

KONTSIDERAZIO OROKORRAK

Espainiako eta Frantziako legediak bi alde hauek azpimarratzen dituzte : giltzapetua eskubideen subjektua da eta zigorra betetzearen helburua birgizarteratzea da⁽¹⁾. Aldiz, oinarrizko legeria horrekin kontraesan nabarmenean, errealitate guztiz ezberdinaren aurrean jartzen gaituzte baldintza konkretuek, araudiek eta legeria bereziek berek. Hain zuzen ere, espetxe ordenamenduko lehentasunen eskalari begiratzen badiogu, espetxeratuak gizartetik urruntzea ekiditeko bitarteko garrantzitsuenak azken tokian agertzen dira, agertzen direnean.

Bitarteko horietako bat familiako harremanei dagokiena da. Harreman horiek guztiz mugatuak dira, batez ere, Espainiar Estatuan, bai denborari dagokionean, bai baldintzei dagokienean. kontaktu fisikorako aukerak, familiako eremuan hain beharrezkoak direnak, guztiz murriztuak daude, bai espetxeratutako pertsonentzat, bai haien senitartekoentzat.

Komunikazioen eremuan, komunikazio berezietarako edo aurrez-aurreko (vis-à-vis) komunikazioetarako hileko gutxieneko batzuk ezartzen ditu Espetxe-Araudiak eta aukera uzten du bisita horien kopurua gehitzeko. Baina, legeriak kontuan hartzen dituen eskubideen interpretazio murriztailea egiten dute espetxeetako agintariek; legeria ez urratzearen, bisitaldiak doi-doi heltzen dira legeak baimentzen duenera. Gutxienekotik gorako bisita-baimenak sari moduan ematen dira; beraz, arbitrarioak dira.

(1) "...espetxeratua eskubideen subjektu da eta ibiltzeko askatasuna eta zigorraren edukiak ukitzen dituen gaitasunak (eskubide batzuk gauzatzeko inhabilitazioa) edo zigorrarekin bateragarriak ez diren eskubideak bakarrik kentzen zaizkio.

Espetxeko zigorren betetzea printzipio honek inspiratzen du: espetxeratua eskubideen jabe da; espetxeratua ezin daiteke gizartetik at utzi, haren zati izaten jarraitzen du eta."

(Preso politiko euskaldunak Euskal Herrira ekartzeari ezezkoa eman zion Entzutegi Nazionalako Autoan Sáez de Valcárcel Magistratuaren boto partikularra)

BISITALDIAK ETA KOMUNIKAZIOAK

Frantziako Estatuko espetxeetan asteko gutxieneko bisita kopurua hau da: ordu erdiko iraupeneko hiru bisitaldi, kasu gehienetan bikoiztu ahal daitekeena familia urrundik heldu bada. Gainera, zigortuen espetxeetan Familia-Bizitzako Unitateak ezartzen ari dira. Unitate horiek aukera ematen dute pertsona espetxeratuak eta haien senitarteko hurbilenak elkarrekin bizitzeko, 72 ordu arte. Duela urte batzuk, telefonoz deitzeko aukera eman zien administrazioak preso guztiei. Ordura arte kondenatuek soilik deitu zezaketen, haatik, soilik espetxe zentral batean bazeuden.

Bisita baldintzak gogorrak gelditzen dira halere, *Maisons d'Arrêt* delakoetan (preso prebentiboak) : tentsio handiko leku goibel eta zikinak, arazo mota ezberdinak... Halere, kristala ez da erabiltzen normalki, eta kontaktu fisikoa posible da, oso modu murriztu batez.

Espainiako estatuko espetxeetan komunikazioek muga hauek dituzte:

- **Asteko 40 minutuko bisita bat, tartean kristal batekin eta interfono bidez.** Ez dago inolako kontaktu fisikorik pertsona espetxeratuaren eta haren senitartekoen artean.
- **Hilean behin familiako aurrez-aurreko (vis-à-vis) ordu eta erdiko bisita,** gehienez lau pertsonentzat, edozein adinetako haurrak barne dira. Pertsona espetxeratuarekin kontaktu zuzenerako aukera ematen duen areto batean egiten da. .
- Hilean behin aurrez-aurreko (vis-à-vis) bisita intimo bat, ordu eta erdi irauten duena.
- **Hiru hilabetez behin 10 urte baino gutxiagoko haurrentzat bizikidetza aurrez-aurreko (vis-à-vis) bisita bat.**

3-4 orduko iraupena duen komunikazio berezi bat da; batzuetan behar bezala egokitu gabe dauden espazioetan gauzatzen da eta askotan espazio hori beste familiekin partekatzen da, horrek intimitatea kentzen diolarik. Espetxe batzuetan ez da aukerarik ematen gurasoek hurrekin jarduera batzuk egiteko behar diren jostailuak, papera, pinturak eta abar eramateko. Era berean, debekatu daitezke elikagaiak, ura, haur-oihalak.

Haurrak 10 urte betetzen dituenean ez dago horrelako komunikazio motarik. Adin horretako haur batentzat zaila da ulertzea zer aldatu den orain bisitak ezberdinak izan daitezen: beste iraupen bat, beste baldintza batzuk. Orain bisitarako duen espazioa beste pertsona heldu batzuekin partekatu behar du, denbora askoz ere laburragoan; egiten zuen bisita-motarako haurra handiegitzat hartzen badute ere, txikiegi jotzen dute bere aita edo amarekin espazio bat partekatu ahal izateko, beste heldu batek lagunduta sartzen ez bada.

Egoera are konplikatuagoa da adin ezberdineko anai-arreben kasuan: anaia-arreba txikiek bizikidetzako aurrez-aurreko (vis-à-vis) bisitak egiten jarrai dezaketen artean, zaharragoak berezituak eta bakartuak sentitzen dira, zergatiak ezagutu gabe. Aurrez-aurreko bisitetan gurasoen eta anai-arreben artean ezartzen zen harreman normalizatua ere hautsi egiten da, anai-arreba batzuk besteengandik bereizten direlako eta batzuekin bisita mota bat egiten den artean, besteekin beste mota bat egiten delako.

- Azkenik, 5 minutu justuko 8 dei baimentzen dira astean zehar.
- Ohiko bisitetarako edo aurrez-aurreko bisitetarako **espazio fisikoari** dagokionez, **inguruneak etsaitasuna sortzen du** (burdinsareak, morroiloak, zaintza ganberak...), hotza da eta eskuarki zikina egoten da. Espazio horiek arratsaldeko azken orduan edo goizeko lehen orduan garbitzen dira; beraz, egunean zehar, segidako komunikazio txanden erabileraren ondorioz zikinkeria pilatzen joaten

da zoruetan, solastokietako kristaletan, aulkietan, bainu-geletan... Aurrez-aurreko topaketetarako aretoei dagokionez, mahai bat eta lau aulki dituzte familiako komunikazioen kasuan, edo ohe bat, komunikazio intimoen kasuan. Edozein kasutan, ez dira komunikaziorako egokiak eta ez dute intimitaterik sustatzen.

- **Komunikazioen iraupenaren** kontrola zorrotza izaten da beti: telefonoko seinalea automatikoki mozten da bost minututara. Interfonoak automatikoki deskonektatzen dira 40 minututara. Aurrez-aurreko bisitak ateetako kolpeen eta funtzionarioen dei hertsagarrien bidez amaitzen dira.

Solastokietako bisitaldietan, interfonoak egon arren, inguruko zarataren araberrakoa da entzuketaren kalitatea. Interfonora hurbiltzeko makurtu beharrak hitz egiten ari den bitartean ikusmen kontaktua galtzera behartzen du. Bisitaldietan interfonoa eta deialdietan telefonoa automatikoki deskonektatzeak agurrak eragozten ditu. Beraz, komunikazioa presatsua izaten da beti, erlojuari lotua. Bisitaldiak 40 minutukoak izateak urgentziazko eta lehentasunezko galetara eta modu eskematikoan hitz egitera mugatzen dute komunikazioa. Ez dago solaserako eta elkarrizketarako denborarik; bisitaldiak eta telefono-deiak mezuak eta mandatuak presaka trukatzera mugatzen dira. Familiako harremana elikatzeko denborarik ez dago.

Berez defizitarioa den egoera honi egungo espetxe-politikak **euskal preso politikoei eta hauen ingurune afektibo eta familiarrari ezartzen dizkien salbuespen baldintzak erantsi behar zaizkio.**

Espetxeetako araudi orokorraren arabera salbuespenekoak diren neurriak euskal preso politikoei modu sistematiko, unibertsal eta iraunkorrean aplikatzean datza sakabanatze politika. **Espetxean sartzeko unean aplikatzen diren neu-**

rriak dira eta espetxetik irten bitartean eusten zaie. Lehen neurria hauxe da: presoak beren jatorrizko lekuetatik eta familiaren bizilekutik aldendu. **Neurri guztiak murriztaileak dira, eta beraz, oinarrizko eskubideen kontra doaz: familia bizitzarako eskubidetik hasi eta askatasunerako eskubidera arte.**

Baina, txosten honen helburua ez da salbuespen esparru honetan gerta daitezkeen eskubide-urraketak aztertzea, baizik esparru horren barruan hurren eskubideak zuzenki ukitzen dituzten urraketak aztertzea. Familia bizitzarako eskubidea ukitzen eta mugatzen dutenak dira; adin txikikoen bizitza baldintzatzen dute, oinarrizko eskubideak ukatuz; ondorio larrienak dituztenak urruntzea eta komunikazioak interbenitzea edo zentsuratzea dira.

II. ZATIA

SALBUESPEN NEURRIAK

URRUNTZEAK:

Txosten hau idazteko unean Euskal Preso Politikoen Kolektiboa 373 pertsonen osatzen dute. Horietako hiru espetxe arinduaren egoeran daude, gaixotasun larriak jasaten dituztela eta. 371 preso euskaldun dispertsatuak aurkitzen dira. Horien arteko bi bakarrik aurkitzen dira espetxe euskaldunetan, eta gainerako 369 presoak beren familia-bizilekutik urrun aurkitzen dira:

- **54**, beren etxeetatik 100 eta 390 kilometroren artean kokaturiko espetxeetan: beren senitartekoentzat, **200 eta 780 km**-ren arteko luzera duten bidaiak.
- **103**, 400 eta 690 km-ren arteko erradioan kokaturiko espetxeetan: beren senitartekoentzat, **800 eta 1480 km**-ren arteko luzerako bidaiak.
- Eta azkenik, **211** preso 700 eta 1100 km-ren artean kokaturiko espetxeetan: beren senitartekoentzat **1400-2200 km**-ren arteko luzerako bidaiak.

Ikus dezakegun moduan, dispertsio politikak beren familia-bizilekutik urrunen dauden espetxeetan kokatzen ditu ahal duen euskal preso politiko gehienak. Neurri honek lehen eragina eta eraginik handiena senitarteko eta hurbilekoengan du, presoak bisitatu ahal izateko bidaia luze eta konplikatuak egitera behartuak gelditzen baitira. Bidaia horiek edozein langilek izan ditzakeen baino baliabide ekonomiko askoz gehiago izatea eskatzen dute, bisitak egin ahal izateko: gehienetan 1500 km gainditzen dituzten bidaiak ari gara; trasbordo konplikatuak eta joan-etorriko konexioak eskatzen dituzten bidaiak dira, bidean

gaua ematea ezinbesteko bihurtzen dutenak. Bestalde, ia ezinezkoa da bidaia horiek eskatzen duten denbora, alde batetik, espetxeek jarritako bisita-ordutegiekin eta, bestetik, eskoletako eta lantokietako ordutegiekin konbinatzea.

KOMUNIKAZIOAK INTERBENITZEA

Espainiako Estatuan espetxeratutako euskal preso politiko guztien komunikazio guztiak kontrolatzen dituzte, espetxeratuak izan diren une beretik. Komunikazio guztiak grabatzen dira, gutun guztiak fotokopiatzen dira. Sarritan, gainera, solasaldien eta eskutitzen edukia komunikabideetara filtratzen da eta ondoren argitaratu egiten da. Frantzian, dei guztiak entzunak eta gutun guztiak kontrolatuak dira. Dakigunez ere, hainbat auzitan presoaren kontra erabili izan dira bisitan esandako adierazpenak.

Orain arte, iraupenean eta baldintzetan hain mugatuak diren bisitek eta deiek komunikaziorako eta familia bizitzarako dakartzaten mugez hitz egin badugu, erraz irudika dezakegu ahozko edo idatzizko edozein komunikazio entzuteak eta kontrolatzeak duen eragin gehigarria. Erabateko intimitate gabeziari beti buruan duten beldur hau erantsi behar zaio: pertsonalak diren solasaldiak eremu publikora hel daitezkeela, espetxean dagoen pertsonaren edo haren ahaideen kaltetan.

Bestalde, komunikazioak interbenitzeak korrespondentzia mugatzea dakar, alde batetik; Espainiar estatuan dauden euskal preso politikoek astean bi gutun bakarrik idatz ditzakete. Bestetik, korrespondentziaren atzerapena dakar, korrespondentzia aztertu eta baloratu egin behar baitute. Sartzen edo irteten den gutun batek helbidera heltzeko eskuarki 15 egun behar baditu, gutuna euskaraz idatzia dagonean hilabete behar izaten du.

Errealitate honek eskubideen subjektu izatetik urrun jartzen du preso eta, plano berean jartzen ditu senitartekoak eta hurbilekoak ere, edozein direla haien zirkunstantziak, baldintzak edo adina.

III. ZATIA

DISPERTSIOAREN HAURRAK

Dispersio politikak ukitutako adin txikikoen errolda egiten ari da uneotan Etxerat. Bizkaian (331) eta Nafarroan (91) jasotako datuetan bakarrik oinarrituta esan dezakegu une honetan dispersioak erasotako adin txikikoak 420 baino gehiago direla. Azterketa honetan oinarrituta aurrera dezakegu 1000 adin txikiko inguru izango direla egoera honetan aurkitzen direnak.

Baina errolda hori **erreferentzia** soila izango da beti: duela hogeita zazpi urte dispersio politika indarrean jarri zenetik, orain askatasunean dauden 1500 preso politiko euskaldunek baino gehiagok bete dute beren zigorra, edo prebentzioko espetxeratzea, bi estatuetako espetxeetan barreiatuta. Honek esan nahi du, ukituak izan diren adin txikikoen kopurua aise izan litekeela lau aldiz handiagoa.

Beraz, ez gara kasu bakar batzuetaz ari (hori ere justifikagarria izango ez litza-tekeen arren), baizik euskal gizarteak aurre egin behar dion errealitate batez; haurren eskubideen babesik ezaren eta urraketaen egoera kezkarria da eta haien garapen pertsonalaren alderdi guztiak ukitzen ditu; horrelako egoera baten aurrean ezein gizartek ezin dezake ez ikusiarena egin eta ezin dezake egoera hori jasan.

Dispersaturik dauden euskal preso politikoen seme-alabak, neba-arrebak, ilobak, lehengusuak edo bilobak dira adin txikiko horiek. Haien **senitartekoak dira**. Kasurik gehienetan adin txikikoaren bizitzarako eta garapen pertsonalerako garrantzitsuenak diren pertsonak dira preso daudenak: haurraren edo nerabearen gurasoak. Pertsona horiekin dituzten lotura afektibo eta familiarrei eusteko eskubidea dute adin txikikoek. Baina, haur horiei alternatiba bat planteatzen zaie: senitarteko presoarekiko harremanei uko egin edo prezio altu bat

ordaindu, **familiartekoak espetxean egotetik ez**, baizik **salbuespeneko espetxe politika** batetik eratortzen diren bidaia luzeak eta beste ondorioak jasanez.

Haur hauetako askok egoera horretan eman dute beren haurtzaro guztia. Beste askok, beren nerabezaroa ere bai. Erakundeen ardura eta babesik ezagutu gabe iritsi dira helduarora; are gutxiago ezagutu dute Estatuaren babesik. Haurraren Eskubideen Konbentzioaren(2) 9. art.-tik **kanpora utziak** izan dira **kontzienteki**, Espainiak eta Frantziak 1990ean sinatu baitzuten, dispertsio politika euskal preso guztiei aplikatu ondoren eta urrunketak Kanariar Uharteak, Balear Uharteak, Ceuta eta Melilla barne-hartzen zituenean.

Aurrez aipatu dugun gertaera bat azpimarratu nahi genuke: kopuru txiki baten salbuespenarekin, euskal preso politiko guztiak **400 km baino gehiagoko distantzietara** espetxeratuak daude, eta haietako gehienak **700 km baino gehiagora**. Beraz, kasurik onenetan 800 km-ko bidaiez hitz egiten dugu; eta kasurik gehien-gehienetan **1500 eta 2200 km** arteko bidaiez.

DISPERTSIOA, ADIN TXIKIKOEN KONTRA

Adin txikikoek bizi duten egoeraren erantzukizuna gehiegitan bizkarreratzen zaie espetxeratutako senitartekoei. Horrela, benetako erantzukizunetatik arreta desbideratzen da, eta larriagoa dena, oso larria den arazo bat saihestu nahi izaten da, eta arazoaren konponbidea atzeratu edo eragotzi nahi izaten da. **Espetxe politika berezitu eta salbuespeneko batek** sortutako egoera salatzen dugu, beste zigor bat eransten baitio zigorra betetzeari eta prebentzioko espetxera-tzeari. Egoera honetatik ez lukete pasatu beharrik izango adin txikikoek, nazioartean indarrean dauden legeria eta arauak aplikatuko balituzte eta euskal preso politikoek familiaren bizilekutik hurbil beteko balituzte beren zigorrak.

(2) Haurraren Eskubideen Konbentzioaren 9. artikulua:

Haurren eskubide bat da aitarekin eta amarekin bizitzea, goi mailako interes baterako bereizketa ezinbestekoa den kasuen salbuespenarekin. Bietako batengandik edo biengandik bereizita badago, guraso biek kontaktua zuzena izatea haurraren eskubidea da. **Estatuari dagokio alderdi honetaz arduratzea, Estatuaren beraren ekintza baten bidez gertatu bada bereizketa.**

Egoera honetatik ez lukete pasatu beharrik izango adin txikikoek, nazioartean indarrean dauden legeria eta arauak aplikatuko balituzte eta euskal preso politikoek familiaren bizilekutik hurbil beteko balituzte beren zigorrak.

Egoera horretan bi ordu nahikoa lirateke bisitetarako eskubidea gauzatu ahal izateko. Baina, dispertsaturik dauden senitartekoak bisitatzeko, adin txikikoek, helduek bezalaxe, aisialdian eta atsedenean eman behar lituzketen asteburuak bidaia luze eta astunetan eman behar izaten dituzte. Haurrentzat gogorra da egin behar dituzten ehunka kilometroak egiteko ordu luzeetan ezer egin gabe eta mugitu gabe egotea. Joaneran 6, 8, 10, 12 ordu eman behar dituzte eta beste horrenbeste itzuleran, eta ordu horiei espetxeko atean eta korridoreetan itxoiten eman beharreko denbora erantsi behar zaie (estatu espainiarrean bisitetarako finkatutako ordua baino ordubete lehenago aurkeztu behar da espetxean).

Lotan dauden haurrak sehaskatik eta ohetik altxarazi behar dira, kilometro eta ordu asko pasatu ondoren beren gurasoak, aitona-amonak edo senitarteko urrunak ikus ditzaten. Atsedena hartzen egon behar luketen haurrek kilometroak eta kilometroak egiten dituzte autoaren eserlekuan, edo geltokiaren an-denean itxoiten egon behar izaten dute. Jolasean ibili behar luketen garaian autoaren eserlekuari loturik edo espetxeko atean orduak eta orduak ematen dituzte.

Adin txikikoak jabetzen dira helduen urduritasunaz edo bidaietako ziurgabetasunaz eta sentipen horiek partekatzen dituzte, honako egoera hauetan: senitarteko presoak beste espetxe batera eramanean dutenean eta garaiz jakinarazi ez zaienean; erretentzio baten ondorioz finkatutako ordurako iritsi ez direnean; araudi berri baten ondorioz aurkeztu ezin duten dokumentazioa eskatzen zaienean... Hitz batean, ehunka kilometro egin eta gero bisita bat hankaz gora bota dezakeen edozein zirkunstantzitan sortzen dira sentipen horiek. Egoera hori ezagunegia da euskal preso politikoek senitarteko eta hurbilekoentzat, eta haurrei ere ezaguna egiten zaie.

Bidaia horietan ezin dira egin haurren ongizaterako beharrezkoak diren geldialdiak eta atsedenaldiak; sinpleki esanda, ez dago horretarako denborarik. Ostiral

arratsaldean, **lanetik irtetea**, hasten da bidaia, larunbat goizean espetxean egon ahal izateko. Komunikazioa, larunbatean izan ordez, igandean baldin bada, arazo berberari aurre egin behar zaio itzulerako bidaian: helduek astelehen goizean lanera sartu behar dute.

Ezinezkoa da kotxe partikularretan bidaia egitea, hurrei eta errepideari aldi berean arreta jarri ezin zaienean. Kasu horretan trenen, metroen, autobusen eta taxien konbinazio konplikatuak egin behar izaten dira, eta lotura edo trasbordo bat ez galtzeko presak estres eta neke gehiago eragiten die adin txikikoei.

Espetxera heltzean ingurune erasokor eta etsaitasunezko bati aurre egin behar diote haur hauek; egoera horretan, helduek bezalaxe, arau zorrotz batzuk bete behar dituzte bisitaldietara sartu ahal izateko: segidako kontrolak, identifikatzeak, katxeoak, arkuak eta detekzio aparailuak. Batzuetan, bere garaian Etxerat-ek salatu zuen moduan, drogaren aurkako Guardia Zibilaren zakurren hurbiltasunak eragindako beldurra jasan behar izan dute.

Bidean doazelarik ere ohikoa da horretarako espresuki antolatutako kontrolak jasan beharra. Beren kotxea, objektu eta jabetzak arakatzen dituzten gizon armatuen sarrera oldarkorra jasan behar izaten dute.

Hamar urte baino gutxiago dituztenentzat egoera hau gogortu egiten da bizikidetzako aurrez-aurreko bisitaldia lanegun batean denean. Egun batean edo gehiagotan **eskolara joan gabe gelditzera behartzen du** horrek haurra. Hori da Topas, Herrera eta Aranjuez-ko espetxeen kasua, beste batzuen artean. Aranjuez-en vis-à-vis bisitaldia gaueko 9etan amaitzen da. Bisita hori egiteko 1000 km egin behar zituzten euskal presoek senitartekoei ez zieten uzten komunikazio-denbora laburtzen, hori eskatzen bazuten ere, etxera lehenago heldu ahal izateko edo egunsentian kilometro gutxiago egin beharra izateko.

Haurrak etxean, ohean eta atsedenean, egon behako zuketen unean 500 kilometroko bidaia bat hasi behar zuten eta kilometro horiek erantsi behar zizkieten joanerako bidaian egindako kilometroei.

Bidaia horien ondorioak eskolarako itzulerari aurre egiteko haur hauek dituzten zailtasunetan nabaritzen dira: oraindik nekatuegiak egoten dira, distraitu egiten

dira, estresatuak egoten dira. Ezinezkoa da egoera honen ondorio fisiko eta psikikoak ukatzea, urteetan zehar egoerak jarraitzen duenean.

Errepideko arriskuek helduak bezalaxe mehatxatzen dituzte adin txikikoak ere. 2012ko abuztuan adin txikiko bi pertsonak istripu larri bat izan zuten, beren aita bisitatzetik itzultzean, zihoazen kotxeak kamioi baten kontra tupust egin zuenean. **Arrisku** hori **ezarria** da, desplazamendua ere ezarria delako. Politika berezitu eta salbuespeneko batek ehunka edo milaka kilometro egitera behartzen dituelako, bisitetarako eskubidea gauzatu ahal izateko.

INTERBENITUTAKO BIZITZAK

Haur eta nerabe hauentzat ezer ez da erraza. Senitartekoei ezarri zaien urruntzetik eta bizi behar izan dituzten baldintzetatik eratorritako arazoen ondorioz nekea eta urduritasuna jasaten dituzte. Baina, nerabezaroa da adin txikikoaren bizitzako etaparik gatazkatsuena; garai horretan nabaritzen da urruntzearen eraginik erasokorra. Nerabeek beren aisialdiko, atsedeneko, gizarte jarduera eta harremanetako ordukin ordaintzen dituzte urruntzearen ondorioak. 40 minutuko bisita baterako, ordu eta erdiko aurrez-aurreko bisita baterako asteburua eman behar dute errepidean. Adin txikiko horiek ezin dira futbol talde bateko kide izan, asteburuko partidetara ezin direlako joan; urtebetetzeetan ezin dira egon, errepideetan daudelako; asteleheneko azterketaren eta larunbateko bisitaren artean aukera egin beharra dute; bidaiaren eta lagunen artean aukera egin beharra dute; aitaren eta amaren artean edo gurasoen eta beste guztiaren artean aukera egin beharra dute.

Gainera, nerabezaroan sentituko dute gehien senitarteko espetxeratuekiko harreman normalizaturik eza. Gurasoekin harremanak izatea garrantzitsuena denean, familia ingurunearekiko lotura afektiboak indartzea garrantzitsuena denean, adin txikiko hauek komunikazioei buruzko araudi batekin topo egiten dute –batez ere Espainiar Estatuan- eta araudi horren espirituak ez du denborarik eta espaziorik uzten lotura afektiboentzat.

Haurrek edo nerabeek gurasoei baimentzen zaizkien komunikazio guztiak baliatuko balituzte, **hilean lau ordu eta 10 minutuko kontaktua** edukiko lukete;

denbora horretatik 2 ordu eta 40 minutu interfono baten bidez edo tartean kristal bat dutela komunikatuko lirateke; aurreko hilean idatzitako 8 gutun eta aitak edo amak egin ditzaketen 5 minutuko telefono-deiak, haurren eskola-orduekin kointziditzen ez badu presoari deialdietarako baimendutako ordutegiak. Komunikazio horiek guztiak egiteko behartuak leudeke hilean 4000 eta 8000 kilometro egitera, eta hori beren heziketaren edo osasunaren amaiera izango litzateke.

Zalantzarik gabe, kontaktu fisiko guztiak eragozten dituen mintzategiko kristalak, interfonoko ahotsaren soinu metalikoak, alboko mintzategietako garrasiek, gelditzen den denbora kalkulatzeko etengabe erlojuari begira egon beharrak ez dituzte harreman pertsonalak errazten eta are gutxiago sustatzen dute nerabeak bere garapen pertsonalerako beharrezkoa duen lotura afektiboa. Baina, **komunikazioen zentsura** (komunikazio guztiak entzuten dituztela, gutun guztiak irakurtzen dituztela, solasaldi guztiak grabatzen dituztela jakitea) da haur eta nerabe hauek harremanetarako, konfiantzarako eta intimitaterako duten edozein espazio ixten duena.

Dagoeneko guztiz kontziente dira grabagailuak instalatuak dituzten mintzategietako bisiten esleipenaren esanahiaz, gutunen zentsuraz, komunikazioak interbenitzeak berekin dakarren intimidazioaz; **horrela, elkarreragin emozionala eta intimitatea hertsapenaren pean gertatzen dira.**

Esana dugun moduan, haur asko egoera horietatik pasatuz iritsi dira helduarora: adin txikiko horiek **interbenitu eta zelatatutako bisita, gutun eta dei horietatik at ez dute beste komunikazio motarik eduki beren gurasoekin.** Egoera horietan, adin txikikoaren eta espetxeratutako senitartekoen arteko harremanak zailtzeaz gain, **adin txikikoaren intimitatea bortxatzen da.**

Espetxe politika honen kontra jarri diren salaketei erantzunez esan izan da adin txikikoaren komunikazioak ez direla interbenitzen; hots, espetxean dagoen pertsonaren komunikazioak interbenitzen direla. Baina, benetan gertatzen dena da adin txikikoaren komunikazioak interbenitzen direla. Adin txikikoaren garapen prozesuak familiaren presentzia eta elkarreragin zuzena eskatzen du; baina, dis-

pertsio politikoaren mendean bizi diren adin txikikoak beren eta gurasoen artean pantaila bat dutela hazten dira; pantaila horrek urruntze fisikoa eta her-
tsapen emozionala eragiten die.

Aurreko paragrafoetan agertu ditugun egoerek haurrarentzat dakarten larritasuna bikoiztu egiten da guraso biak daudenean espetxeratuak, eta, gainera, espetxe ezberdinetan daudenean. Urteak pasa litezke Espetxe Erakundearen Zuzendaritzak edo Zaintza Epaitegiak guraso biak espetxe berean egotea onar dezan baino lehen. Beste batzuetan, hainbat hilabetetik hainbat hilabetera, guraso bietako bat beste gurasoa dagoen espetxera eramaten dute, bisita bat edo bi egin ahal izan ditzaten.

Esan beharra daukagu gainera, adin txikikoak babesteko premiak edo lekualdatzeak dakarten zama arindu eta ahal den ziurtasun gehiena eman beharrak ahalegin eta kostu ekonomiko handiagora behartzen dituela helduak. Gastuak ezin daitezke murriztu edozein tokitan gaua emanez; ezin da edozer gauza jan; ezin da bi egunetan ogitartekoak janez ibili; ezinezkoa da arreta errepidean jarri eta aldi berean haurrak zaintzea.

IV. ZATIA

DISPERTSIOAREN ALDERIK ILUNENA

Dispertsioak haurrentzat eta beste adin txikikoentzat dituen ondorioak ezezagunak gerta daitezke gizartearentzat, oro har, baina egungo espetxe politikaren babesleentzat ezagunak dira. Gobernuek, agintariek eta euskal gizarteko gehiengoaren borondatearen kontra espetxe politika indargabetzeri uko egiten dioten indar politikoek badute politika horrek sortzen duen sufrikarioaren berri. Sufrikario horren berri edukita, haurrak eta adin txikikoak xantaiarako eta senitarteko espetxeratuei presioa egiteko tresna moduan erabiltzen direnean, espetxe politikaz baino areago praktika perbertsoaz hitz egiten dugu. Dispertsioaren alderik ilunena da.


Etixerat-ek Erakundeetara jo izan du haurren eskubideak zaindu beharrak eta haurren babesaz arduratu beharrak eraginda, dispertsioa desaktiba zezaten eta haurren egoeraren jarraipena egin zezaten; horrelakoetan ez da inoiz ikusi dispertsioa onartzen duten indar politikoek daturik edo txostenik eskatu dutenik. Kontrapartidak bai, eskatu dituzte; senitartekoak damutu daitezela, senitartekoek ETA utz dezatela... Jarrera kalifikaezin horretara lerratu da EAJ ere.

Eskubide-urraketen salaketen aurrean erakundeek eta agintariek ardura oso serioak hartu beharra daukate. Haurren eskubideen urratzea askoz larriagoa da. Hala ere, Inditex-en tailerretara jo beharrik ez dago interes batzuen izenean beren eskubideak ukatu zaizkien haurrak eta adin txikikoak aurkitzeko; Inditex-en kasuan, interes ekonomikoen izenean; dispertsioaren haurren kasuan, interes politikoen izenean.

Ez dugu Indiaz, Hego Afrikaz edo Mexikoz hitz egiten. Hemengo hurrei buruz, ezagutzen ditugun hurrei buruz hitz egiten dugu; ostiral arratsaldero ikus di-

tzakegu, motxila bizkarrean dutela, bidaiako ordu luzeei, kilometroei, nekeari eta arriskuari aurre egiten, dispertsio-politikaren aldekoen onarpenarekin.

Bihoakie gure aitorpena familiako maitasun eta loturaren borrokalari txiki handi hauei eta bihoakie gure konpromisoa, haur hauen egoera, eragotzi ezin izan duguna, berriro errepika ez dadin.



I. ERANSKINA

DISPERTSIO POLITIKAren eragina
HAUR eta NERABEENGAN
psikologoen begiradatik

TXOSTENA

DISPERTSIO POLITIKAREN eragina HAUR ETA NERABEENGAN

Sarrera

Ondorengo txostenaren helburua, psikologiaren garapenaren psikologiaren oinarri teorikotik abiatuta eta errealitate hau bizi duten hurrekin lan klinikoa egiten duten profesionalen esperientzian oinarrituta, dispartzio politikak, espetxeetara bidaiatzen duten euskal preso politikoen seme-alabengan duen eraginaren inguruan, hausnarketa bat abiatzea da. Ezer baino lehen, aipatu beharra dago eta kontutan hartzekoa da, ez dagoela zentzu honetan, errealitate honen ondorioak bizi dituzten adingabeengan dispartzio politikak nola eragiten duen sakonki aztertzen duen lan edo ikerketarik, are gutxiago erakundeek bultzatutako azterketarik. Eremu klinikoak maila teoriko zein praktikoa ematen digun jakituriar gain, senideen eremuan egindako taldekako lan eta tailer bakanek eskaintzen digute informazioa hausnarketa hau burutzerako orduan. Zentzu horretan, dispartzio politikaren errealitatea bizi duten adingabeengan, zein nolako eraginak dituen modu zehatz eta sakonean aztertuko dituen lana egitea ezinbestekoa ikusten dugu; izan ere, herri honetako milaka hurrei eragiten die edo eragin izan die beraien bizitzan zehar.

Garapenaren psikologiaren oinarri teorikotik abiatuta, eta arlo teorikoaren azalpenerako, Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultateko irakasle diren Fernando Olabarrieta eta Maria Luisa Reizabalek, 2014ko martxoan argitaratutako txosten teknikoan oinarritzen da lan hau⁽¹⁾.

(1) 2014-03-06ko datarekin, EHUko *Familiaren Psikologia*-ko irakasle laguntzailea den Fernando Olabarrietak eta *Garapenaren Psikologia*-ko irakasle titularra den Luisa Reizabalek txosten teknikoak igorri zuten espetxean 10 urtetik gorako seme-alabekiko komunikazio arazoak zirela-eta familiek aurkeztutako erre-kurtsoari atxikituz.

Garapenaren psikologiaren ezagutzatik

Gaur egungo psikologiaren inguruko ezagutza zientifikoaren arabera, eta zehazki garapenaren psikologiaren ikuspuntutik, haur eta nerabeen garapen indibidualeko eremu guztietan, eremu sozio-emozionalean, kognitibo-linguistikoa, psikomotorrean, egokitzapenaren eremuan, etab., dispertsio politikak hauen guztien garapen egokia oztopatu eta zaildu egiten duela esan genezake. Izan ere, gurasoetako bat edo biak espetxean izateak sorrarazten dizkien gabezi edo arazoak okertu edo eta handitu egiten ditu dispertsioak. Bestalde, garapenean dagoen subjektu horrek, beharrezkoak ditu bere familiarekiko (mikrosistema edo berehalako testuingurua, garrantzitsuena dena haurraren garapen osasuntsu baterako) oinarritzko interakzioak izatea. Dispersio politikak interakzio horiek gauzatze aldera eta haien maiztasuneaz, eragin kaltegarria izaten du. Baieztapen hauek argudiatzen dituzten arrazoi objektiboak azalduko dira ondoren Garapenaren Psikologiaren eremutik:

■ Haur eta nerabeen garapen afektiboaren ikuspuntutik, literatura zientifikoak, pertsonalitatearen garapenerako lotura afektiboen garrantzia azpimarratzen du (atxikimendu ziurraren ezarpenerako). Lotura hau, goiztiarra izaten da eta haurraren hasierako urteetan hasten bada ere, haurraren oinarritzko behar biologiko zein psikologikoak asetzetik ezarriko da. Asetze honetarako, kontaktu fisikoa eta haurraren eta bere zaintzailearen artean lehenik, eta familia sistema osoarekin ondoren, sortzen diren interakzio emozionalak beharrezkoak dira.

■ Lehen mailako lotura afektibo hauek ezarri ondoren, beharrezkoa izango da haurraren eta nerabeen adinerako egokiak diren kontaktu zuzenak mantentzea. Mantentze hau ordea, subjektuaren garapenaren prozesu guztian zehar egon beharko du presente, aipatutako loturak behin betiko finkatuta eta sendotuta gelditu daitezela. Hau guzti hau, beharrezkoa izango da haur eta nerabearen garapen sozio-emozional osasuntsu bat bermatu ahal izateko.

■ Garapen kognitibo eta linguistikoa, guraso zein senideen imitaziotik ematen denaren garrantzia ukaezina da. Imitazio hau gainera, andamiaje kognitiborako beharrezkoa izango da eta estruktura intelektualen garapena baimentzen du.

Prozesu hau guztia eman dadin, familiaren gutxienezko presentzia eta interakzio zuzenak beharrezkoak dira.

■ Haurraren eta nerabearen pertsonalitatearen elementu gehienek modelatze eta garapena, ama/aita eta seme/alaben arteko interakzio ludiko espontaneoetatik eratorriko dira. Aipatutako interakzio espontaneo horiek, oinarritzko emozioen erregulazioa, haurraren adinarekin bat datorren estruktura kognitibolinguistikoa sendotzeko batzuen sorrera, garapen psikomotorreko osagaien heldutasuna eta arazo desberdinen aurrean horietara egokitze gaitasunen ezartzea ahalbidetuko dute.

■ Kontutan hartu behar dira gurasotasun positiboaren kurrikulumeko aldagaiak. Aldagai hauek praktikara eraman behar dira familiako interakzioak kalitatekoak izan daitezkeen eta ondorioz, haur eta nerabeen garapen psikologikoa egokiagoa izan dadin. Testuinguruaren arabera aldagai hauek, zeintzuk elkarrekin egotea behar duten izan, ama eta aitek ezagutu eta praktikan jarri behar dituzte beraiei seme/alabekin. Hauek, garapen kognitibo eta linguistikoaren estimulazioaren eremukoak (ikaskuntzaren estimulazioa, jokoaren potentzialitate eta garapen kognitibo eta linguistikoaren estimulazio propioak), garapen sozio-emozionalaren estimulazioaren arlokoak (adierazte emozionala, limite eta arauen ezarpena, autoestimua eta autonomiaren potentziazioa, etab.) eta ingurune fisiko zein sozialaren (ingurune fisikoaren kalitatea, hezikuntzaz arduratzen den bigarren pertsonaren inplikazio maila, zaintza ordezkatuaren kalitatea, familia zabalarekin eta sare sozialarekin harremana, etab.) antolakuntzaz arduratzen diren arlokoak dira.

■ Nerabezaroan, aldaketa somatiko, sexual, psikologiko eta sozial sakonak gertatzen dira, haur izateari utzi eta heldu izaten hasten da pertsona. Nerabeek, honengatik guztiagatik, gurasoen maitasun, arreta eta kontaktua behar izaten dute, batez ere, interakzio zuzena eta kontaktu fisiko zein emozionala. Zentzu honetan, bai haurtzaroan eta baita nerabezaroan ere, lehentasunezko beharra izango da ziurtasun emozionala. Honek, gurasoengatik (esanguratsuak diren pertsonengatik) onartua, maitatua eta baloratua izatearen hautematea barne hartzen du. Aipatutako beharra asetu dadin, beharrezkoa izango da haurrek eta

nerabeek gurasoekin interakzio zuzenak eta kontaktu fisikoa izatea, izan ere, modu horretara jasotzen dituzte afektuzko adierazpenak zein adierazpen emozionalak (irribarrea, laztanak, besarkadak eta beste zenbait adierazpen). Adierazpen hauek guztiek, enpatiazko, ziurtasunezko, goxotasunezko lotura afektibo positiboak lortzea ahalbidetzen dute. Nerabezaro garaia, 10 urtetatik 19 urte arteko garaia bezala ezagutzen da, Munduko Osasun Erakundearen arabera.

■ Nerabezaroan, oinarrizko interakzio zuzenak eta kontaktu fisikoa galarazten duten araudi orok, garapen osasuntsurako ondorio negatiboak ekartzen ditu. Ziurtasun emozionala behar bezala asetua ez duten haur eta nerabeek, atsekabe hori bakardade, baztertze edo abandonu bezala sentitzen dute. Honek guztiak, autoestimu arazoak, beldurrak, ziurgabetasuna, bakartze sentimenduak, bakardade emozionala eta beste zenbait psikopatologia sor ditzake.

■ Haur eta nerabeen kolektibo honek (gurasoetako bat edo biak kartzelan dituztenak), gurasoak kartzelan egonik eskuragarri eta irisgarri ez dituzten haur eta nerabeek, gizarte- bazterketa pairatzeko arrisku maila altuagoa izan dezakete. Beraz, ikuspuntu psikopedagogiko batetik, arrisku hau minimizatu dadin, gurasoekiko komunikazioa, normalizatua, maiztasunezko zein egoera fisiko egokietan izatea beharrezkoa litzateke.

Hausnarketarako informazio iturri nagusiak

2014. urtean, euskal preso politikoak bisitatzera joaten ziren 550 haur eta nerabe zeuden Ttipi-ttapa(2) lantaldeak bildutako datuen arabera. Egun, 1000 inguruan direla badakigu. Hauen guztien artean, badago ahaidetasunaren araberrako eta urtean egiten dituzten bidaia kopuruarekiko desberdintasunik.

(2) Ttipi-Ttapa lantaldea, haur eta nerabe hauekin lan egindako hainbat profesionalek osatutako lantalde bat izan zen, irakasle, psikologo, hezitzaile, etab.-ek osatua, haur hauek bizi dituzten egoerak direla-eta kezkatuak. Egindako lanen artean, bisitetara zihoazen umeen egoera eta baldintzak aztertzea izan zen, presoek eurek eskainitako informazioetik abiatuta, baita baliabideak eskeini ere. Horretaz gain, errealitate hau bizi zuten familiekin hausnarketa bultzatzeko tailerrak eta talde dinamikak bultzatu ziren, egoera ezagutu eta aditzera emateko helburuz eta haur horiei begirako baliabideak sortze aldera.

Aipatutako oinarri teorikoa kontutan hartuta, dispertsio politikak haur eta nerabeengan eragiten dituen ondorioak hausnartu eta aztertzeko, informazioa bide hauetatik lortu da batez ere:

- Ttipi-ttapa lantaldeak kartzeletara bidaiatzen duten haur, nerabe eta hauen familiekin antolaturiko talde dinamika tailerrak zein burututako datu-bilketa.
- Dispertsioaren ondorioak jasan dituzten seme-alaben testigantzak.
- Eremu klinikoan egoera hau pairatu izan duten umeekin lan egindako profesionalen urteetako jakintza eta esperientzia.

Haur eta nerabe hauen kolektiboan, esperientzia klinikoaren arabera maiz topatzen dugu honako sintomatologia, beraien eremu psikosozial zabalean eragina duena. Gurasoak espetxean izatearen errealitateak berak eragina zuzena baduela ukaezina izanik ere, dispertsioak egoera horiek guztiak gaiztotzen eta gordinago bihurtzen ditu dudarik gabe, harreman normaldua, kontaktua eta guzti honetarako maiztasuna zailduz, eta beraz sintomatologia larriagotuz.

Horretarako, dispertsio politikaren ondorioz, hilabetean behin edo bitan, aste-buruetan bidaiatzen duten euskal presoek seme-alabak hartu dira hausnarketa gune (nahiz eta gehiago diren bidaiatzen dutenak baina maiztasun gutxiagorekin), eta biztanleriaren haurren kolektibo horretan honako sintomatologia topatu izan dugu sarritan eremu klinikoan zein Ttipi-Ttapa lantaldeak bultzatutako taldekako hausnartze eremuetan:

- ▶ Animoaren egoera depresibo edo haserrekorra
- ▶ Aurkako jokabide eta jarrera suminkorra

- ▶ Atsegingarriak ziren jardueren inguruko interesaren galera, etxean zein eskolan
- ▶ Norberarekiko konfiantza eta estimuaren galera
- ▶ Gutxiagotasun sentimenduak
- ▶ Auto desbalorizazioa
- ▶ Ziurgabetasunaren hautematea
- ▶ Heriotzaren inguruko ideia errepikakorrak
- ▶ Keinu autolitikoak
- ▶ Estresa
- ▶ Arreta eta kontzentraziorako zailtasunak
- ▶ Jokabide hiperaktiboak
- ▶ Antsietate maila altua
- ▶ Loan alterazioa
- ▶ Amets gaiztoak
- ▶ Zefaleak
- ▶ Neke fisikoa
- ▶ Gaixotasun psikosomatikoak

Haur eta nerabeek aurkezten duten sintomatologia honen guztiaren ondorioz, ondokoa orokortu daiteke: Gurasoetako bat, edo biak kartzelan egoteak, haur eta nerabearen garapen afektibo edo emozional, kognitibo, sozial eta psiko-motorrean eragiten du. Dispersioak, eragite hau areagotu egiten du, haurraren eta nerabearen garapeneko eremu guztiak ukituaz.

Askotan, kartzela zigorra ez bezala, dispersioa, beraiei ezartzen zaien zigor bezala hautematen dute haur eta nerabeek. Bidaiak, estres egoera batean jartzen dituzte eta beraz, gogoz kontra egiten dutenaren bizipena izaten dute maiz. Baina, bidaiatu nahi ez dutela esaten duten haur eta nerabeak, horrelakoetan, guraso zein familiengandik bultzatuak dira eta kasu horietan ere, zigorraren hautemate bat izaten da. Maiz, haur eta nerabeek, beraien bizitzaren protagonismoa desplazaturik dagoela sentitzen dute. Hau da, beraien bizitzaren ardatza, presoa bera izaten da eta beraien agenda, bidaien arabera antolatuz dutela sentitzen dute.

Honek guztiak, lehen aipaturiko sintometako batzuen sorrera ahalbidetzen edo errazten dute, hala nola, animoaren egoera depresibo edo haserrekorra, aurkako jokabide eta jarrera suminkorra, etxean eta eskolan atsegingarriak ziren aktibitateen inguruko interesaren galera...

Gure ezagutzaren arabera, kartzelara egiten diren bidaiak luzeak eta astunak izaten dira kolektibo honetako subjektuentzat. Batez ere, konplexuagoak izaten dira haurrak adin txikikoak direnean. Bidaiak, gehiegizko esfortzu fisiko zein psikiko eskatzen diete, eta hauek osasunaren galera eragiten diete. Asteburuetan izaten dira bidaiak (ia bidaia guztiak, gutxiagotan dira astean zehar egiten diren bidaiak) eta egun gutxien buruan, kilometro asko egiten dira, espazioa etengabe aldatzen doa eta arrunta izaten da dimentsio espazialaren galera, eta beraz, desorientazio espaziala pairatzea.

Horrela, loan alterazioa gertatzen da, eta amets gaiztoak jasatea nahiko ohikoa da. Honek guztiak, zefaleak, eta neke fisikoaren agerpenean eragiten dutela pentsatzen dugu. Honen guztiaren ondorioa izan daiteke gaixotasun psikosomatikoak garatzea. Nahiko arrunta da, bidaia baten aurrean gaixo jartzen diren

haur eta nerabeak. Gaixotze hauek, arrazoi psikikoak izaten dituztela ondoriozta dezakegu, nahiz eta sintomak maila fisikoan azaldu.

Haur eta nerabeen testuinguru garrantzitsuenetako bat eskola da. Normalizazioarako, garapen kognitiborako baina baita garapen sozialerako berauen eremua izanik, honetan ere eragin zuzena izaten dute dispartzioak eragindako bidaiek. Kasu askotan, eskola orduak galdu behar izaten dituzte bidaian irten ahal izateko eta helmugara, gaua izan aurretik iritsi ahal izateko. Honek guztiak, beste haur eta nerabe guztietatik desberdina izatearen sentimendua areagotzen du haien esanetan, eta beraz garapen emozionalean eragin negatiboak sortzeaz gain, ikasketen erritmoan ere ondorio kaltegarriak sortzen ditu. Ikasketen erritmoa galtzeko arriskua handitzen da ondorioz, eta azterketak modu egokian prestatzeko beharrezkoa den denbora ez dute izaten asteburua suertatuz gero. Ondorioz, motibazioa galtzen joaten dira askotan. Bestetan, ikasketak, denbora galtze bat direnaren sentimendua izaten dutela topatu izan dugu ere. Bidaia nekagarrien ostean, eta deskantsurako tarterik gabe, haur eta nerabeei oso konplexua egiten zaie sarritan ikasgelan, egun osoko ordutegi batean eta aste osoan zehar beharrezko arreta eta kontzentrazio maila mantentzea. Ohiko ondorioa izaten da gure esperientziaren erabera estres eta antsietate maila altuak pairatzea. Jokabide hiperaktiboak ere oso sarri topatu izan ditugu kolektibo honetako sujetuetan.

Eskolari lotuta egoten da kirolari dagokion espazioen sorrera. Haur eta nerabe hauek guztiek, zaila izaten dute "eskola kirolean" parte hartzea, izan ere, talde bateko partaide izateak, asteburuetan presentzia izatea exijitzen du eta hilabetean behin, edo bitan, bidaiatu behar izateagatik, ezin da beraien presentzia bermatu. Horrela, kirol-taldearen partaide izatearen sentimendua garatzea oso zaila egiten zaie eremu honetan eta honek erreakzio errektiboak sortarazten ditu; hau da, ez dute taldean jolasten ikasteko hainbeste aukera izaten eta beraz, indibidualismoan oinarritutako kirol edo jokoak aukeratzera eramaten dituzte maiz. Espazio ludiko hauek berdinekin ez elkar banatzeak, edo behintzat modu intermitentean partekatzeak, garapen sozialean zailtasunak eta isolamendu soziala pairatzeko arriskua areagotzen dutela esan dezakegu. Bidaien maiztasuna geroz eta altuagoa izateak, objetiboki, istripuak izateko aukerak

areagotzen ditu. Beraien hautemate propioa dela eta, edo helduek bidaia baten aurrean sufritzen duten estres eta beldurren sentimenduen transmisore izateagatik, gure lanean maiz aurkitzen ditugu heriotzaren inguruko ideia errepikakorrak dituzten haur eta nerabeak. Honek guztiak, babesgabetasun eta ziurgabetasun sentimenduak areagotzen ditu eta nortasunaren garapenarekin korrelazionatzen da erabat, garapen osasuntsu afektibo eta emozionala, zein kognitiboa oztopatuz. Bestetan, muturreko egoerak (istripuak pairatu edo bi-dean istripuen ikusle izateagatik) bizi behar izanagatik, arriskuarekiko kontzientzia falta izaten dute batzuetan. Kontzientzia falta hau aldi berean, arriskutsua bilakatu daiteke haur eta nerabeen osasunaren babes edo mantenurako.

Haur eta nerabe hauen bizitzan, eta egiten dituzten bidaia guztietan, kanpo aldagaien presentzia oso handia da. Kanpo aldagaiak izatean, haur eta nerabeen kontroletik at egoten dira. Honek, frustrazio maila altua eragin diezaieke eta finean, beraien gurasoetako bat, edo biak, ikusi eta harremantzeko aukera ez dute beraien aukeren baitan dagoenaren hautematea izaten. Horrek, maiz, norberarekiko konfiantza eta estimuaren galera ekar dezake, gutxiagotasun sentimenduak garatu ditzazketelarik eta auto desbalorizazioa presente egon daitekeelarik.

Egindako lan klinikotik, behaketatik eta taldeka egin izan diren tailerretatik abiatuta beraz, honako ondorio honetara irits gintezke: dispertsioak berak, preso dagoenarekiko harremana zailtzen duen unetik, sakondu eta larriagotu egiten duela aipatu berri den sintomatologia.

Azkenik, egon badago, fenomeno bezala lan terapautikoan topatu izan dugun sintoma edo ondorio bat: erru sentimenduarena. Haur eta nerabeek, maiz, desberdinak ez izateagatik, bidaiatu beharragatik beste zenbait gauza alboratu behar dituztelako, preso dagoen gurasoarekiko harremana naturala ez dela sentitzeagatik eta honek sortzen duen urduritasun, estres, nahigabe, tristura sentimenduengatik, ingurukoen espektatibak ez betetzeko beldurragatik, etab. erru sentimendua garatzen dute sarritan. Muturreko kasuetan keinu autoliti-koekin ere harremandu izan dugularik.

Haurren esanak

Haur eta nerabeek, testuinguru psikoterapeutikoan, horrela adierazten dute gertatzen zaiena:

- "Nekatuta hasten dut astea, ez naiz ikasgelan kontzentratzen"
- "Lehenengo aita etor dadila etxera, ez ditut bidaia luze horiek egin nahi eta bidaiak amaitzean, orduan hasiko naiz ikasgelan lanean"
- "Gauza asko izaten ditut buruan, bidaiak egiten ditugunean"
- "Ama bai, baina kotxeko bidaia ez dut nahi"
- "Bidaiatzeak zorabiatze bati nau, ez dakit non egoten naizen asteburu osoan zehar"
- "Lo hartu eta nire etxea ez den toki batean nago. Oraindik gaua denean esnatu behar naiz nire logelakoa ez den ohe batean lo hartzeko. Hurrengo egunean berdin. Eta hurrengo hilabetean berriz"

Ondorioak eta gomendioak

Arestian aipatutako umeenganako ondorio eta eraginak nahikoa arrazoi badira ere, Giza Eskubideekin konpromezua adierazten dugun pertsonak izanik, ezin ahaztu ditugu ehundaka adingabe horiei dagozkien eskubideak, ume izateagatik berezko eskubideak dituztela jakinda. Hainbat artikulua irakur ditzakegu umeen garapen osasuntsu baterako eskubideaz edo eta gurasoekin harremana izateko eskubideaz norabide horretan NBEek 1989ko azaroan onartutako Haurren Eskubideen inguruko Hitzarmenean.

Txosten honetan argudiatutako guztiak, giza eskubideen kontra egiten duen dispartzio politika ahalik eta lasterren bukatzeko beharra agerian jartzen du beste behin ere. Zentzu horretan, osasun mentalean aritzen garen profesionalok esperte politika honek suposatzen dituen eta suposatu ahal dituen ondorioak ezagutzera eman nahi ditugu. Ildo honetan, ondorio eta eragin guzti horiek sakonki eta modu zehatzean aztertuko dituen ikerketa-lan bat burutzeko garrantzia eta beharra azpimarratu nahi dugu, eta beraz, dagokion instituzio zein agintariri hainbeste adingaberi eragin dion errealitate hori aztertzeko baliabide eta bitartekoak jartzeko eskatzen diogu.

Donostian, 2016ko maiatzaren 27an

Egilea:

Haizea Barandiaran Zubillaga (Haurdunaldiko haur - nerabeen eta helduen psikoterapeuta) Col.: GZ-02480

Sinatzaileak:

- Fernando Olabarrieta Arteché ("Familiaren Psikologiako" irakasle laguntzailea EHU-UPV) Col.: BI-00027

- Maria Luisa Reizabal Arruabarrena ("Garapenaren Psikologiako" irakasle titularra EHU-UPV) NAN: 15975363T
- Eider Salegi (Psikologian Lizentziatua, HUHEZIko irakasle "Berrikuntza eta Esku hartzea Hezkuntza Inklusiboan" eta psikomotrizitate terapeuta)
- Nagore Lopez de Luzuriaga Comunión (Familia, bikote eta banakoen psikoterapeuta/psikologoa) Col.: AA-00715
- Maialen Elizburu Etxeberria (Psikologian Lizentziatua) NAN: 15387583P
- Edurne Epelde Pagola (Psikologian Lizentziatua)
- Ixone Legorburu Madinabeitia (psikologoa/psikoterapeuta) Col.: zkia AA00610
- Teresa Velasco Plaza (psikologo sanitarioa) Col.: GZ-00171
- Itziar Tres Borja (Haur, nerabe eta helduentzako psikologoa) Col: N-01176
- Eneko Sansinenea Mendez (EHU-UPV Psikologia fakultateko irakaslea) NAN: 15983544Q
- Olatz Barrenetxea Larrondo (Psikologo klinikoa-Psikoterapeuta) Col.: BI 01156
- Miguel Angel Navarro Lashayas (Psikologo soziala) Col.: BI 04498
- Maritxu Jimenez (Psikologo-Psikoterapeuta) Col.: BI 02884
- Ana Laura Gil Suarez (Haur eta Helduentzako psikologoa) Col.: N-01252
- Ion Ibañez de Opakua Alzola (Psikologoa) Col.: A-00809
- Oihana Barrios (Psikoterapeuta eta psikologo forensea): Col. : N-01101
- Anik Zubizarreta (Psikologoa): Col. : BI 04410
- Iruñe Korres Medrano (Psikologoa-Haur eta Helduen Psikoterapeuta) Col.: AA0820



II. ERANSKINA

*Gehigarri hau, abokatuek erredaktatutako testuaren jatorrizko hizkuntzan dago

DISPERSIÓN: VULNERACIÓN DE LOS DERECHOS DEL NIÑO

INFORME JURÍDICO

La **Constitución Española de 1978**, enumera en el capítulo III del título I, los principios rectores de la política social y económica del Estado. En el artículo 39, hace mención a la obligación de los poderes públicos de asegurar la protección social, económica y jurídica de la familia y dentro de ésta, con carácter singular, la de los menores:

Artículo 39 de la CE:

- "1. Los poderes públicos aseguran la protección social, económica y jurídica de la familia.*
- 2. Los poderes públicos aseguran, asimismo, la protección integral de los hijos, iguales éstos ante la ley con independencia de su filiación, y de las madres, cualquiera que sea su estado civil. La ley posibilitará la investigación de la paternidad.*
- 3. Los padres deben prestar asistencia de todo orden a los hijos habidos dentro o fuera del matrimonio, durante su minoría de edad y en los demás casos en que legalmente proceda.*
- 4. Los niños gozarán de la protección prevista en los acuerdos internacionales que velan por sus derechos."*

La **Constitución francesa de 1958**, plantea en su inicio también ciertos derechos de los menores.

La actual Constitución de 1958 cita el principio de la **Constitución del 27 de octubre de 1946:**

«1. Au lendemain de la victoire remportée par les peuples libres sur les régimes qui ont tenté d'asservir et de dégrader la personne humaine, le peuple français proclame à nouveau que tout être humain, sans distinction de race, de religion ni de croyance, possède des droits inaliénables et sacrés. Il réaffirme solennellement les droits et libertés de l'homme et du citoyen consacrés par la Déclaration des droits de 1789 et les principes fondamentaux reconnus par les lois de la République.

10. La Nation assure à l'individu et à la famille les conditions nécessai-

res à leur développement.

11. Elle garantit à tous, notamment à l'enfant, à la mère et aux vieux travailleurs, la protection de la santé, la sécurité matérielle, le repos et les loisirs. (...)

14. La République française, fidèle à ses traditions, se conforme aux règles du droit public international. (...)»

Esta preocupación por dotar al menor de un adecuado marco jurídico de protección trasciende también de diversos Tratados Internacionales ratificados por España: Muy especialmente, la **Convención de Derechos del Niño, de Naciones Unidas, de 20 de noviembre de 1989**, ratificada por España el 30 de noviembre de 1990, que marcan el inicio de una nueva filosofía en relación con el menor, basada en un mayor reconocimiento del papel que éste desempeña en la sociedad y en la exigencia de un mayor protagonismo para el mismo.

Para este trabajo, los artículos de interés recogidos en la **Convención de Derechos del Niño**, serían los siguientes:

"Artículo 1:

Para los efectos de la presente Convención, se entiende por niño todo ser humano menor de dieciocho años de edad, salvo que, en virtud de la ley que le sea aplicable, haya alcanzado antes la mayoría de edad."

"Artículo 2:

1. Los Estados Partes respetarán los derechos enunciados en la presente Convención y asegurarán su aplicación a cada niño sujeto a su jurisdicción, sin distinción alguna, independientemente de la raza, el color, el sexo, el idioma, la religión, la opinión política o de otra índole, el origen nacional, étnico, o social, la posición económica, los impedimentos físicos, el nacimiento o cualquier otra condición de niño, de sus padres o

de sus representantes legales.”

“Artículo 4:

Los Estados Partes adoptarán todas las medidas administrativas, legislativas y de otra índole para dar efectividad a los derechos reconocidos en la presente Convención.” (...)

“Artículo 9:

1. Los Estados Partes velarán por que el niño no sea separado de sus padres contra la voluntad de éstos, excepto cuando, a reserva de revisión judicial, las autoridades competentes determinen, de conformidad con la ley y los procedimientos aplicables, que tal separación es necesaria en el interés superior del niño. (...)

2. (...)

3. Los Estados Partes respetarán el derecho del niño que esté separado de uno o de ambos padres a mantener relaciones personales y contacto directo con ambos padres de modo regular, salvo si ello es contrario al interés del menor.”

“ Artículo 18:

1. Los Estados Partes pondrán el máximo empeño en garantizar el reconocimiento del principio de que ambos padres tienen obligaciones comunes en lo que respecta a la crianza y el desarrollo del niño. Incumbirá a os padres o, en su caso, a los representantes legales la responsabilidad primordial de la crianza y el desarrollo del niño. Su preocupación fundamental será el interés superior del niño.”

Este mandato de la Constitución Española (art. 39) y de los tratados internacionales suscritos por España (fundamentalmente la Convención de Derechos del Niño de la ONU), ha sido desarrollado por distintas leyes internas: la más importante y cercana en el tiempo es la **Ley Orgánica 1/1996, de 15 de enero, de Protección Jurídica del Menor**. En su Título primero, enuncia un reconocimiento general de derechos contenidos en los Tratados Internacionales de los que España es parte, que además deben ser utilizados como

mecanismo de interpretación de las distintas normas de aplicación a las personas menores de edad.

En el **artículo 2**, se hace referencia al "interés superior del menor":

"1. Todo menor tiene derecho a que su interés superior sea valorado y considerado como primordial en todas las acciones y decisiones que le conciernen, tanto en el ámbito público como privado. (...) "

"2. A efectos de la interpretación y aplicación en cada caso del interés superior del menor, se tendrán en cuenta los siguientes criterios generales (...):

a) La protección del derecho a la vida, supervivencia y desarrollo del menor y la satisfacción de sus necesidades básicas, tanto materiales, físicas y educativas como emocionales y afectivas.

(...)

c) La conveniencia de que su vida y desarrollo tenga lugar en un entorno familiar adecuado y libre de violencia. Se priorizará la permanencia en su familia de origen y se preservará el mantenimiento de sus relaciones familiares (...).

En el Capítulo Segundo, se enumeran **los derechos del menor** y en el **Artículo 3**, se hace referencia a Instrumentos Internacionales:

"Los menores gozarán de los derechos que les reconoce la Constitución y los Tratados Internacionales de los que España sea parte, especialmente la Convención de Derechos del Niño de Naciones Unidas y la Convención de Derechos de las Personas con Discapacidad, y de los demás derechos garantizados en el ordenamiento jurídico, sin discriminación alguna (...)"

En otros apartados del presente trabajo se han descrito situaciones familiares en los que muchos menores tienen a su madre o su padre, o a ambos, en Centros Penitenciarios alejados del lugar donde viven ellos. Esta situación conlleva que no sea respetado el interés superior del menor y se vulneren mu-

chos derechos que tienen reconocidos, como menores, tanto en tratados internacionales como en la legislación interna española, a que hemos hecho referencia durante el presente estudio:

- El derecho a la familia.
- El derecho a mantener relaciones personales y contacto directo con ambos padres de modo regular.
- El derecho al desarrollo del menor y la satisfacción de sus necesidades básicas, tanto materiales, físicas y educativas como emocionales y afectivas.

En caso de que el padre o la madre, o ambos, estuvieran cumpliendo su condena en Centros Penitenciarios cercanos al domicilio del menor, esto facilitaría tener una comunicación regular y una relación más cercana, sin generar más perjuicios al menor de los que ya genera el internamiento en un Centro Penitenciario.

Por otra parte, la legislación francesa establece en su “**Code de Procédure Pénale**” el derecho a la relación entre el preso y su familia:

Article 402 D:

«En vue de faciliter le reclassement familial des détenus à leur libération, il doit être particulièrement veillé au maintien et à l'amélioration de leurs relations avec leurs proches, pour autant que celles-ci paraissent souhaitables dans l'intérêt des uns et des autres.»



Etxerat

Euskal
Preso eta Iheslari
Politikoen
Senide eta Lagunen
Elkartea